

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 24/2022 Foru Dekretua, maiatzaren 24ko. Onestea otsailaren 27ko 26/1996 Foru Dekretuaren aldaketa, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiaren eta erakunde laguntzaileen arteko finantza, zerga eta antzeko eragiketen arloko harremanak arautzen baitira

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 27ko 26/1996 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren eta erakunde laguntzaileen arteko harremanak arautzen ditu finantza, zerga eta antzeko eragiketei dagokionez.

Egun, garapen teknologikoarekin batera, Internet bidezko banka nabarmen hedatuz joan da. Horren ondorioz, finantza erakundeak bezeroaren arretarako gune gisa irekitako bulego fisikoen kopurua murrizten ari dira nabarmenki.

26/1996 Foru Dekretuaren "Dirubilletarako erakunde laguntzaileak" 2. artikuluan xedatzen da Araban bulegoak irekita dituzten banketxeak, aurrezki kutxak eta kreditu kooperatibak izango direla dirubilletarako erakunde laguntzaileak.

Aurrekoaren ondorioz, Arabako Lurralde Historikoan bulego irekirik ez duten finantza erakundeekin lan egiten duten herritarrentzat zaildu egin da Arabako Foru Aldundiarekin dituzten betebeharrak betetzea.

Azaldutakoari dagokionez, komenigarria da 26/1996 Foru Dekretuaren 2. artikulua lehenengo apartatua aldatzea, hau da, banketxeek, aurrezki kutxek eta kreditu kooperatibek dirubilletan laguntzaile izateko Araban bulegoa irekita edukitzeko baldintza kendu behar da.

Horregatik, lehen diputatu nagusiordeak eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea Arabako Foru Aldundiaren eta erakunde laguntzaileen arteko finantza, zerga eta antzeko eragiketen arloko harremanak arautzen dituen otsailaren 27ko 26/1996 Foru Dekretuaren 2. artikulua, "Dirubilletarako erakunde laguntzaileak" deritzona:

2. artikulua. Dirubilletarako erakunde laguntzaileak

"1. Dirubilletarako laguntzaile izango dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak berariaz baimendutako eta erakunde laguntzaileen erregistro berezian inskribatutako banketxeak, aurrezki kutxak eta kreditu kooperatibak (aurrerantzean gordailu erakundeak), bai eta baimentzen diren beste erakunde edo zergadun talde batzuk ere, Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Arabako Lurralde Historikoko Dirubilletari buruzko Erregelamendu Orokorraren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2. Dirubilletan laguntzeak ahalbidetuko du Arabako Foru Aldundiaren eta zuzenbide publiko edo pribatuko gainerako zerga kredituen zenbatekoa jasotzea, behar diren dirubilleta kontuak irekiz"

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 10a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria

EDUARDO LÓPEZ DE AGUILETA DÍAZ